


Los Angeles-en erditik pasatzen dira autobideak.  
Kotxeak nagusi. Eta oinezkoak?



# ERRALDOIKERIA AURRERA-PAUSA

Ipar-Ameriketara etortzean (eta areago Euskal Herritik etortzean), herrialde honen tamainak harritzen du, bereziki. Dena da handia hemen, handiegia gure ustez: distantziak, hirien jende-kopurua, hotzaren hotza neguan, beroaren beroa udan, dena eskerga, dena handiegi. Herrialde hau erraldoi-herri bat balitz bezala. Eta, jakina, hiria eta herrialdea handiegi bazaizkigu, geure burua txikiegi agertzen zaigu ezinbestean. Baina hau, gainera, maila guztietan gertatzen da; eta, beraz, ezer ez izatearen kutsu hori, barne-erriataraino sartzen.

Treina, esate baterako, gainbehera doa hemen erabat. Postaletan, esate baterako, gure artean gurdien eta leren fotoak ager daitezkeen bezala agertzen dira; edo, zehazkiago, haurtzaroan ezagutu genituen tranbia famatu haien fotoak bezala. Treinak badaude, jakina; dotoreak gainera, bi pisutakoak, benetak talai itxurakoak beren gainaldean. Baina jendeak ez ditu ia erabiltzen; berehala gertatzen baitira 10 ordutako bidaiak, 20-takoak, 40-takoak, are 60 ordutako bidaiak ere! Nork pasako ditu egun osoak tren beretik irten gabe? Ezin! Hemendik, esate baterako, San Diego-ra joan daiteke treinez, México-ko mugan; edo-ta, Iparralderantz, San Francisco-raino agian. Hortik aurrera, ezin; distantzi horiek egun berean treinez egiterik ez baitago. Treinak, horrela, zahar kutsu harrigarria hartu du; eta Los Angeles-ko geltokia ez da, itxuraz eta ma-

miz, Donostia-koa baino inportanteago. Zinez.

Jendeak hegazkina hartzen du: edozertarako, edonorako, hegazkina hartu behar. Kilometroak hor daude, ordea; eta hegazkinez, arauera merkea izanik ere, bidaiek gaesti jotzen dute. Mogitzea, beraz, Europan baino areago, klase-arazo bihurtu da: dirua dute-nak mogitzen dira.

Kotxeak ugari dira, dudarik gabe; eta gasolina merke dago, horko prezioaren erdian edo. Baina treina jo duen gaitz horrek, kotxea ere jotzen du distantzi luzeetarako: nola egin berebileraz 2.000, 4.000 edo 6.000 kilometro. Hemen habailaren muga (55 milla/orduan) oso hertsiki errespetarazten denez gero, bi mila kilometro egiteko 30 edo 35 ordu kondatu behar dira. Eta ahal dutenek hegazkinera jotzen dute. Berebilak, estatu mailan balio du, ez Federazioaren mailan. Donostiatik Bruselara hiru aldiz (**joan-etorria**, jakina) egitea da Los Angelestik New York-era **joatea** (joatea, alegia, itzulera gabe).

Aparkatzeko arazoa, dena dela, ez da txantxetako. New York-en erdian, esate baterako, 3,07 dolar balio du zenbait lekutan orduerdi bakar batez aparkatzeak (600 peze-ta orduan). Eta gruak harrapatuz gero, akabo. Zubi asko eta hiri-autobide asko ordaindu beharrak dira. Kotxeak, hitz batez, galesti jotzen du hirien erdian.

3  
2  
)  
W  
X  
A  
S  
2  
B  
N  
2  
+  
17  
A  
Y  
X  
8  
)  
7  
: :  
2  
6  
9  
+  
76  
op

Los Angeles-en, ordea, kotxerik gabe nekez bizi daiteke. Zazpi miloi biztanle dituen hiri honek, metrôrik ez du; eta tranbia edo trenik ere ez: kostaldetik dabilenak ez du hiria gurutzatzen; eta Santa Monica bulebarran behera doan burnibideak, aspaldi honetan ez du bere gainean bagoirik jasan.

Sentindu honetan, eta askotan, askoz ere normalago zaigu New York, askoz ere «**euro-patarrago**», Californiako hiriburua baino.

Los Angeles-en, esate baterako, etxe-bizitza gutxi dago, oso gutxi. Gehien gehienak hemen etxetxo partikularretan bizi dira. Ondorioa, beraz, aisa uler daiteke: munduko hiririk zabalena munduan Los Angeles da. Vermont edo Western etorbideek 42 kilometro dituzte, zuzen-zuzenean. Beste hainbeste ditu, bihurguneka bada ere, Sunset bulebar famatuak. Nire etxetik Santa Monica hondartzara, 22 km. daude. Griffith Obserbategitik (Hollywood-en erdian, halere) itsasora, kaira beraz, 52 km. daude, zuzenean. Baina Malibu dotoretik, euskaldunen txokoa omen den Chino-ra, 100 km. daude; eta hondartzatik hondartzara Newport-etik Malibu-ra joanez gero, 110 km. behar dira kondatu.

Kalez kale, eta argi gorrien aurrean geldituz, hiri horretan barrena ibiltzerik ez zegoe-larreparatu zuten. Eta horregatik, hiri-barruan batetik bestera ibiltzeko, autôbideak daude, pilo bat, kale normalen azpitik hona eta hara.

Eta kotxerik ez dutenak? Errespeturik ez. Bankuan kontua irekitzeko, adibidez, «**driver license**» eskatu zidaten niri (ez pasaporteak!); eta kotxerik ez dudanez gero, lanak izan nituen banku-kontua irekitzeko. Hemen «**persona normalak**» kotxea du, eta «**gida-baimena**» ere bai, hortaz. Gainerakoak? Vade retro!

Autobusetan, horretara, beltzak eta «**latinoak**» ikusten dira: autobusetan espainera da hizkuntza nagusia. Aisa! Letreroak eta iragarpenak ere gaztelaniaz maizago autobusetan, ingelesez baino. Nork ez du oraindik «**diglosia**» hitza entzun? Beste batean mintzatuko natzaizue honetaz, dena dela.

Hemen, beraz, «**driver license**» hori ez duena, sospetxagarri gertatzen da: «**nor ote da mokolo hau, oraindik ere kotxerik gabea? Kontuz!**»...

Kutsadura, horretara, handia da; eta kaleek, oso maiz, garaje-kiratsa dute, azkar, sarkor, azkura eman arterainokoa. Zortzi eta hamar zerrenda dituzten barne-autobideak, kokatu egiten dira maiz goizaldean eta arratsaldean, milaka kotxeak ezin bideratuz.

Txirotasuna, beraz, inon ez da Los Angeles-en baino nabarmenago eta zapaltzaileago

gertatzen. Ezta kontrasteak ere. Hemen jende asko baitago lanik gabe, beltzen eta latinoen artean batez ere.

Prentsak gutxitan azaltzen ditu problemak hemen, jakina. Hala ere zenbait aldiz izkutu ezinak dira diru-desberdintasunak; eta lehengoan, horretara, saminki salatzen zuen bertako «**Times**» egunkariak, Reagan Asurantzia Soziala eta Irakaskuntza freinatzen ari den momentu honetantxe, eskandalo-iturri gertatzen dela Nancy (haren emazteak) azpil-joko bat erostean 200.000 dolar gastatzea (hogei miloi peseta, beraz). Reagan-en «**ranch**» pertsonala, bestalde, hemendik Iparraldera, berrehun miloi pezetatan erosi zuen berriki...

Prensa horren tamaina, bestalde, txundigarria da (nahiz Europa osoaz oso lerro gutxi ekarri, Poloniaz edo ez izatekotan). Bai hemengo «**Times**»ek, bai New York-ekoak, igandero-igandero, 480 orrialdetako alea botatzen dute. 480 orrialde handi, koloretan ere bai batzu. Eta galdera hau da: Zer idatz daiteke 480 betetzeko? Zenbat balio?

Erantzuna erraza da. Prezioaz, merke; 15 duro bakarrik. Mami az, berriz, hona hemen, laburtuz amerikatarrek aurkitzen dutena. Berriak, orrialdeen **goiko xerrenda xume batez**, bakarrik. Zine-teatroak: 104 orrialde. Telebista: 32 orrialde. Etxe eta lurralde salmenta: 46 orrialde. Liburu berri: 12 orrialde. «**Business**»: 24 orrialde. Iragarpen merkeak, letra txiki-txikitik: 126 orrialde. Bidaiak: 20 orrialde. Eta abar. Iragarpenak nagusi, hitz batez; eta hauen jarleak, noski, saltzaileak. Ez dut besterik erantsiko.

Ez dakit xehetasun hauen bidez hemengo kutsua hartzen ote den. Baietz espero dut.

Erants horri orain autobusetan Jangoikoa-ri buruz maiz entzuten diren predikuak; erants horri inork ere ezagutzen ez dituzten elizek eta sektek, edozein kaletan erakusten dituzten «**church**» dotoreak; erants horri katagorriak parkeotan, eta pelikanoak hondartzan; erants horri eskuzko irrati hiperdoto-reen zalaparta gorgarria (hondartzetan eta autobusetan, patioetan eta parkeetan); erants horri kaleen ikuskari harrigarria: ilundu orduko, erabat hustu direlarik; erants horri ilea moztutzeak mila pezeta balio dituela... eta, agian, hau zer den somatzen hasiak zarete. Ez da guretzat egina, ene ustez; niretzat behintzat ez.

Zinez: hemengo zero urdina galduagatik ere, nahiago nuke bihar xirimiriaren bustiduran Kontxatik edo Baztandik bueltatxo bat eman. Erraldoikeria hau gaitzi zait, benetan.

Zuri ez, agian?

Txillardeg